

# Bertsolari Eguna 1992ko liburua ere prest dago: 'Nafarroako Bertsolaritza'

Datorren igandean Donostiako Victoria Eugenia erosi ahal izango dute bertsozaleek

**B**ertsolari Eguna 1992ko egitaraua prest zegoela adierazi genizuen gaur zortzi orrialde hauetatik bertatik. Xehetasun garrantzitsu bat falta zen hala ere: liburua. Prest dago jada aurtengo omenduei buruzko liburua ere. Pablo Jose Aristorenak prestatu du eta 'Nafarroako Bertsolaritza' du izenburutzat.

JUAN LUIS ZABALA / DONOSTIA

Liburuaren aitzin solasa idazteaz arduratu den Aingeru Epaltza idazleak dioen bezala, «Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak urte guziz antolatzen duen Bertsolari Egunari halako filosofi aldaketa ezarri nahi izan dio 1991 honez goiti», eta aurtengo omendutakoak bertsolari izan beharrean bertsoaren aldeko langileak izatea da aldaketa nahi horren ezaugarri nagusietako bat.


«Bertsolaritzaren protagonista betidanik eta betiere bertsolaria izan eta izanen bada ere», idatzi du Aingeru Epaltzak liburuaren aitzin solasean, «bidegabekeria litzateke, bertsolaria izan gabetik, fenomeno hau posible egiten duten bertze aunitzen lana —lan eskerga eta isila, maizko— aitormenik gabe uztea. Erizpide horretatik abiatuik hautatu ziren iaz aurtengo omendutako lagunak: Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta eta Emile Larre».

Baina omenduen aukeraketak ezezik, Bertsolari Egunean ohizkoa den urteroko liburuaren prestakuntzak berak ere izan du berritasunik, Epaltzak aurrerago aipatzen duen bezala: «Nafarroan pentsatu, abiatu eta borobildutako lan batez ari gara, horrek ekarri duelarik aintzineko Bertsolari Egunetako liburuak argitaratzeko erabili ohi diren moldeetatik kanpo ibiltzea. Lehen-lehenik, babeslea behar zen, eta horretarako Elkarteak nahiago izan du nafar instituzioak proiektura erakarri, Bertsolari Egunaren inguruan ibiltzen diren ohizko erakundeengana jo baino. Hala bada, Nafarroako Gobernuaren Kultur Departamentuaren dirulaguntzak ahalbideratu du argitarapena».

Epaltzak aurrerago dioen bezala, ordea, «sosa izate hutsak ez du, dena den, berez deus gauzatzen». Liburu gaiza-



Teodoro Hernandorena eta Pablo Jose Aristorenak, elkarrekin solasean.



Emile Larre eta Mariano Izeta.



AITOR BAYO / PETRI

tzeko lanaren ardura nagusia Pablo Jose Aristorenak hartu du. Hernani jaino baina Iruñean bizi den bertsolari, bertsozale eta kazetari gaztea «esku artean zer zuen ederki zekiela abiatu da», Epaltzak dioen bezala, «kasik detektibe antzean, handik eta hemendik, hor eta han barreiatu zirenduak atzeman, metatu eta papereratzera».

**JENDE ASKOREN LAGUNTZA** Aristorenak ez du, hala ere, bakarrik egin lan hau. Laguntza eskaini dioten lagun ugarien zerrenda egin du egileak berak, 'Esker mila' izeneko atalean.

Lontxo Aburuza, Eugenio Arraiza, Manu Gomez eta Enrique Diez de Ulzurrun izan ditu aholkulari Aristorenak, liburua egiten aritu izan den denbora guztian. Aingeru Epaltza, Mikel Taberna eta Paskual Rekalde arduratu dira Aristorenak idatzitako testuen orrazketaz. Aristorenari datuak eta iritziak eman dizkietenek, berriz, zerrenda luzegeia osatzen dute hemen osorik emateko.

Omenduei buruzko datu biografikoak eta hainbat bertsolarik —Alkhat, Argiñarena anaiak, Arozena, Elizagoien eta Mendiburuk— omenduei buruz jarritako bertsoak irakur daitezke liburu-

ren lehen atalean. Eta baita Izetak berak 'Sorlekuari' eta 'Bidasoako trenari' jarritako bertsoak ere.

Baina, izenburuak berak adierazten duen bezala, liburu honek ez du bakarrik igandean omenduko diren hiru pertsonaien berri ematen. Nafarroako bertsolaritzaren ikuspegi orokorragoa ematen ere saiatu da Aristorenak, «Nafarroako bertsolaritzaren historia baino istorioak jasotzen», berak adierazi duenez.

Liburuaren bigarren atalean honako kapitulu hauek irakur daitezke: 'Iluntasunetik argira, argitik iluntasunera', 'Nafarroako Txapelketen lehen aldia (1960-1966)', 'Lasarte', 'Xalbador', 'Gibeleratze urteak' (1967-1979), 'Nafarroako Txapelketen bigarren aldia' (1979-) eta 'Bertsolaritza irakaskuntzan'.

**BALIO DOKUMENTAL HANDIA** Azkenik, hainbat eranskin ere baditu liburuak, interes handi-

ko datuak biltzen dituztenak: 'Nafar bertsolarien zerrenda', 'Nafarroako txapelketen zerrenda', 'Hernandorenak antolatu saioak', 'Izetak antolatu saioak', 'Nafarroako bertsolari txapelketen bigarren aldiko zerrendak' eta 'Bertsolari Egunean omenduen zerrenda'.

Balio dokumental handiko argazkiak ere bildu eta argitaratu ditu Aristorenak. Nafarroako bertsolaritzari buruzko dokumentazio lan handia da, beraz, igandean Victoria Eugeniara joaten direnek eskuratzeko aukera izango dutena.

Aingeru Epaltzak liburuaren aitzin solasean dioenari kasu egiten badiogu, hutsune handi bat betetzen hasteko saio egokia izan daitezke liburuak: «Nafarroak izen haundiak eskeini dizkio bertsolaritzaren historiari. Horra, lekuko, liburu honetan behin eta berriz aipatzen diren Xalbador eta Lasarte. Beti ere, badugu, herrialde gisa bederen, bertsolaritzaren historiografia 'ofizialek' kanpora gel-ditu ez ote den susmoa, izen haundi horiek ezin bizizko basamortu krudel baita atzeman oasis bitxiak bailira. Horren frogagarri, ateratzen hasiak edo ateratzekotan diren 'bertsolaritzaren entziklopediak'. Gipuzkoak, Bizkaiak eta Iparraldeak izanen dute haietan beren lekua. Nafarroak, aldi, hemen sekula bertsolaritzarik ez izan edo honen aipamenik merezi ez balu bezala».

## ALBISTEGIA

**BERROGEITAMAR BERTSOLARI** izango dira, gutxi gorabehera, datorren igandean Donostian ospatuko den Bertsolari Eguna 1992an parte hartuko dutenak. Jakina denez, Victoria Eugenia aretoan izango da Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta eta Emile Larren omenezko saioa, eguerdiko 11.30etan hasita. Han izango dira Imanol Lazkano, Jon Lopategi, Xabier Amuriza, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Millan Telleria, Jon Enbeita, Andoni Egaña,

Mikel Mendizabal, Lazkao Txiki, Manuel Lasarte, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Jesus Egileor, Patxi Etxeberria, Jon Sarasua, Xabier Euskitze, Manolo Arozena, Joxe Fermin eta Joxe Miel Argiñarena, Bittor Elizagoien, Xanpun, Xalbador, Jean Pierre Mendiburu, Ernest Alkhat, Juan Mari Areitio, Ireneo Ajuria, Iñaki Murua, Olaso, Pablo Jose Aristorenak, Jon Mugartegi, Jose Luis Gorrotxategi, Anjel Larrañaga eta beste hainbat bertsolari, Euskal Herri oso-koak. Aurkezle lana **Iñaki**

**Murua eta Xabier Euskitze** bertsolariek egingo dute.

Sarreraren salneurria 700 pezetakoa (35 libera inguru) izango da. Saioaren ondoren, Zubietako 'Dana Ona' jate-txean egingo da bazkaria. Bazkarirako txartela 3.000 pezetan (150 libera inguru) salduko da. Saiorako zein bazkaritarako txartelak honako toki hauetan eskura daitezke: Tolosako Agustin Enea taberna, Azpeitiko Pastorkua erretegia, Donostiako Bilintx liburudenda, Hondarribiko Olearso liburu-

denda, Elizondoko Antxitonea trinketea, Baionako Zabal liburudenda eta Ustaritzeko Euskal Kultur Erakundea.

**BERTSULARIEN LAGUNAK** elkarteak autobus bat antolatu du, datorren igandean Donostiara joan eta Bertsolari Eguna 1992ko ekitaldietan izan nahi duten Iparraldeko bertsozaleentzat. Izena emateko epea gaur bertan amaituko da, eta telefono honetara deitu behar da horretarako: 59 29 81 21 (Etxegoien-engatik galdetu).

**ASTEBURUKO BERTSO SAIOAK.** Larunbata, urtarrilak 18: **Algorta:** San Nikolas ikastolan, arratsaldeko 5etan, Balendin Enbeita IV Bertso Paper Lehiaketako sarien banaketa, Bizkaiko bertsolari gazteen partaidetzarekin: Unai Iturriaga, Igor Elorza, Iñigo Gojenola, Kepa Intsausti eta Beñat Gaztelurrutia. **Lesaka:** Arrano elkartearen, gaueko 9etan, bertso afaria, Xabier Amuriza eta Sebastian Lizasorekin.

# Bertsolaritza

COORDINATZAILEA

Juan Luis Zabala

LAGUNTZAILEAK

Felix Irazustabarrena

Rufino Iraola

Jon Sarasua

Laxaro Azkune

Jexuxmari Mendizabal

Arantzazu Loidi

Joserra Bilbao

Pablo Jose Aristorenak

Rikardo Gonzalez de Durana

Joxerra Garzia